

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Orexa



Aurkibidea

Udalerria: Orexa

Sarrera



Orex a Gipuzkoako Tolosaldea eskualdeko udalerria da. Nafarroarekin mugan dago eta probintziako herri txikienetako bat da. Lizartza du mugakide mendebaldean, Nafarroako Araitz bailara hegoaldean, Gaztelu, Lizartza eta Berastegi ekialdean eta Lizartza eta Gaztelu iparraldean. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 122
- **Euskaldunak:** %92,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **14**
- Pasarteak: **3**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **3**

Proiektuak


- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Elvira Ariztimuño Aranalde (1930)



Gazteluko Santionean jaio arren, lau urte zituela Orexako Malkorrera joan zen bizitzera familiakoekin eta bertan bizi izan zen ezkondu zen arte. 14 senidetan zaharrena, bigarren ama izan zen askorentzat eta txiki-txikitatik gogor egin behar izan zuen lana etxean eta baserriko lanetan. Eskolara joateko ia aukerarik gabe, neskame joan zen 19 urterekin Tolosara. Ondoren, Donostiako Mari gozotegian aritu zen lanean hiru urte gehiagoz. 24 urte zituela, Orexako [Joaquin Ibarluzea Iturralde](#)rekin ezkondu zenean, Lizartzako lurretan dagoen zentrolean jarri zen bizitzen eta lau seme-alaba izan zituen. Besteak beste, jaiotza eta heriotza kontuak kontatu dizkigu.



Antonia Arruabarrena Ausmendi (1934)

Aita eta Ama Orexakoak zituen. Orexako Sarregi baserrian hazi zen Antonia, bi anaia gazteagorekin eta gurasoekin batera.



Martin Balerdi Mintegi (1926)

Txuñeberrin jaio zen, aitaren jaiotetxean, eta bertan bizi izan da beti. Zortzi senidetan zaharrena, txiki-txikitatik hasi zen baserriko lanetan gogor. Morroi joan beharra ere izan zuen, herriko beste baserri batera. Denbora aurrera joan ahala, baserriko lana eta fabrikakoa uztartu behar izan zituen, Txaramako Araxes fabrikari aritu baitzen lanean 15 urtez. [Bittori Iturralde Gibelalde](#) rekin ezkondu eta hiru seme alaba izan zituzten. Haren ondoan eman digu bizitakoaren berri.



Genara Gastesi Agirrezabala (1924-2016)

Bedaiokoa zuen ama, Frantziska Agirrezabala eta aita Orexakoa, Jose Gastesi. Bi hilabete zituenean hura hil, eta osaba izan zuen aita, Geremias Gastesi. Iribarren baserrian jaio eta bertan bizi izan zen, 22 urterekin Joxe Iturrioz orexarrarekin ezkondu zen arte. Mikelenen hartu zuten bizitokia, eta 14 seme-alaba izan zituen hogeitun urtean. 20 biloba eta lau birloba ditu. Zazpi senidetan bigarrena, eskolara joateko aukera gutxi izan zuen eta gogor egin izan du lan txiki-txikitatik. Familia giroko kontuez mintzatu zaigu emakume alai bezain prestua.



Joaquin Ibarluzea Iturralde (1924)

Jose Maria Ibarluzea gazteluarraren eta Agustina Iturralde Galdarazkoaren semea. Ormaetxea baserrian jaio eta bertan bizi izan zen 4 urte arte. Terreno txarrak zirela-eta, Bideartetxe baserrira joan zen gero bere familiarekin maizter. 12 senidetan bigarrena, gazte-gaztetatik morroi joan behar izan zuen; besteak beste, Berastegin aritu zen artzain lanetan. Amaroako lima fabrika eta diputazioaren bitartez lortutako "camenero" lanak ezagutu zituen ondoren. Hanketako gaitza zuela-eta, laister erretiratu beharra izan zuen. 30 urterekin, [Elvira Ariztimuño Aranalde](#) rekin ezkondu eta Lizartzako lurretan dagoen zentrolean hartu zuten bizitokia. Lau seme-alaba izan ditu. Gizon alai bezain prestua, Orexako herriaz eta gaztetako pasarteaz mintzatu zaigu.

Joxepa Ibarluzea Iturralde (1933)



Biartetxe baserrian jaioa, gurasoek maizter hartutako etxean. Ama Goldarazkoa zuen, Agustina Iturralde; aita berriz, Gaztelukoa, Joxe Mari Ibarluzea. 12 senidetan 6., neskame joan behar izan zuen oso gazte zela. Asteasu, Lizartza eta Lasarte ezagutu zituen, baina garai tristeak izan zirela dio, etxea eta etxekoak asko botatzen baitzituen faltan. 22 urterekin, [Joxe Iturrioz Malkorrarekin](#) ezkondu eta 8 seme-alaba izan zituen. Ardiaren ilearekin haria nola egiten zen erakutsi digu, besteak beste.

Bittori Iturralde Gibelalde (1927)



Iriarte baserrian jaio zen, aitonaren jaiotetxean; hain zuzen ere, gerora, aitaren jaiotetxea izan zen baserrian. Orexakoa zuen aita, Joaquin; ama, berriz, Paula, Leaburukoa zen. 9 senidetan zazpigarrena, gainerako ahaideak bezala, gazte-gaztetatik hasi zen baserrian lanean. 29 urterekin, [Martin Balerdi Mintegirekin](#) ezkondu zen Txuñe Berrira. 3 seme-alaba izan dituzte. Emakume alai bezain umoretsua, Orexaren lehengo garaiez eta bizitzako gorabeheraz mintzatu zaigu senarrarekin batera.

Joxe Iturrioz Malkorra (1923-2012)



Orexakoak zituen gurasoak, Joxe Iturrioz aita eta Katalina Malkorra ama, baserritarrak biak. Txuñen jaio zen, belaunaldiz belaunaldi etxeko seme zaharrenari pasa zitzaion baserrian eta bertan bizi izan da beti. [Joxepa Ibarluzea Iturralde](#) rekin ezkondu eta zortzi seme-alaba izan zituen. Txiki-txikitatik baserriko lanetan aritu zen jo eta su, baita basoan ikazkin bezala ere. Txondorrez, gariak eta euskal txapelaren usadioaz mintzatu zaigu, besteak beste.

Mahai-ingurua Orexan



Honako hauek hartu zuten parte Orexako Legasa baserrian, 2011ko abenduaren 27an egindako grabazioan: Juanito Beristain Iturralde, Ormaetxea baserrikoa (1938-06-21); Joxe Martin Malkorra Arrastoa, Ormaetxegarai baserrian jaioa (1939-04-16); eta Legasako Joxe Atxega Olasagasti (1926-03-12).

Joxepa Malkorra Arrastoa (1929)



Zizurkildarra zuen ama, Xerapia Arrastoa. Aita, Luis Malkorra Oresako Ormaetxegaraikoa. Bertan jaio zen Joxepa. 12 senidetan bigarrena, ez zuen eskolara joateko aukera handiegirik izan, gogor aritu baitzen lanean txiki-txikitatik etxeko eta baserriko lanetan. 12 urterekin Lizartzara joan zen neskame eta 16 urterekin Berastegira. Bizkarreko gaitz batek 8 hilabetez eduki zuen ohean etzanda eta etxera bueltatu zen. 22 urte zituela, Migel Atxega Larteko semearekin ezkondu eta Larten bertan jarri ziren bizitzen, lau alaba izan ditu. [Maria Malkorra Arrastoa](#) lehengusinarekin eman digu berak bizitakoaren berri.

Maria Malkorra Arrastoa (1926)



Altziturririta jaio eta bizi izan da betidanik. Zizurkildarra zuen ama, Juanita Arrastoa. Aita, Oresakoa, Felix Malkorra. Bi hilabete zituela ama galdu eta izeba izan zuen amaorde. 25 urterekin Juan Maioz anoetarrarekin ezkondu zen. Baserriko lanetan aritu da txiki-txikitatik eta lanik gustukoena ardi-zaintza zuela dio. Horretaz mintzatu zaigu [Joxepa Malkorra Arrastoa](#) lehengusuarekin, baita eskola garaiaz, Oresaz eta beste hainbat kontuz ere.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Eskolara gutxi joan ahal izandakoak

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Ausmendi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ORE-001/010
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:18:54. **Bukatu**: 00:20:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena**: Eskolari garrantzia ematen zioten gurasoek, baina 14 urte zituztenerako lanera joan behar izaten zuten. Tarteka piper egiten zuten, maistrak zigortuko zituen beldur. Nolako zigorak izaten zituzten aipatzen du.

Transkripzioa

- Gaiña ordun esaten al zuen gurasok oain bezela eskola inportantia zala ta, merezi zula ta...?
- Bai, bai, eskola... hortan bai, hortan... eskolako zea hoi zeatzen zuen. Baiño eskola junda, ordea, bata [...] ez baitue, ez baizan holako zeaik izaten. Oain bezela? Oain, zea, hoguei urte... ta ordun hamalau urtekin,

fuera! Lanea! Ta oain, berriz, zea, hogeita gehio, zea, hogeita hamar urtekin eskolan dabiltze. Oain, ez dao... garai hartatik gauzak asko zeatu die.

- Ta tarteka piper o iten al zenuen?

- Batzutan bai. Igual hua're. Askotan bai, maixuk... zea, o maistrak o, zeatu ingo digula, jo ingo gaittula, ta bat'e ez jun igual. Bueno, guk ez gendun... baiño izaten zien, tarteka izaten zin gure etxen, o... gure herrin behintzat. Piper eiñ, abittu ta etxea allatu bare... [...] herrin jolasen ibili ta gero etxea jun, eskolako ordua etortzen danen, etxea. Jo, holakok itten zittuenak bazien. Tarteka. Oiñ, erabat ez, baiño.... gaiñentzen... Ta maixuk-eta... hontaa jarri eskue ta makillikin kazka! Goitik behera jotzen zuen, ez bau... ez bau zeatzen, esaten, ikasita ez badao.

- Ta bestelako kastiguk? Liburuk eskutan jarrita ta...

- Bai, bai, hoik... izaten giñun. Gaiñantzen eskolakin gaizki ibiltzen giñen, gutxi zeatzen giñen.

1.2. Gabonetako janaria

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Ausmendi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ORE-001/015
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:29:45. **Bukatu**: 00:33:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Gabonak ospakizun onak izaten ziren: Gabon-gauean zer afaltzen zuten aipatzen du. Lehen familia izatean oilo-salda jateko gomendatzen zuten.

Transkripzioa

- Ordun'e ospatuko zian Gabonak o?

- Bai, bai. Gabonak ospatzen zien. Hoik ondo. Gabonetan ta Urte Berri ta hoik... Jana, jana izaten gendun, go.seik ez gendun pasatzen. Ez gaur bezela nahi duun zeatik, baiño behintzat goseik ez.

- Gabonetan ze afaltzen zenduen hoitalau gabian? Gabon gauen ze izaten zan afariya?

- Jateko? Arkumea o, etxen balin badaukezu, hue preparatzen zun. Aittek eo hilko zun ta geo jan. Arkumea erre... Ta hoi [hornillo] o zea batzuk izaten zian gaiñea. Brasa, brasa jarri ta han erretzen gendun, erretzen gendun, gaiñea. Brasa, brasakin, zea hoi, ikatza o zea bota, ta gero gaiñen zea jarri, kazuela, lurrezko haundi hoitakoa, ta han jarri arkumea ta han earki erretzen zan arkumea, e. Nik hango arkum... ordun han erretako arkumea ikeragarri gustoa jaten nun.

- Zer ba, patatakin jarrita o...?

- Bai patatakin ta. Gu hola ibiltzen giñen gaiñantzen. Gero oilloa o. Oilloa bestea izaten zan egosita. Familia izaten bazu're oillo salda ta oilloa, lehen hoi izaten zan, indarra altxatzeko, familie izaten dunen, oillo salda ta. Medikuk zeatzen zuen. Oain, gaurko hauek ez.

- Ta Gabonetan, ordun, aurrena arkumia...

- Ez! Aurreti izaten zan beti zeozter; o izango gendun porru-patata igual izango gendun, baiño behintzat... Ez, goseik ez. Gero arraie-ta izaten giñun, [...] tarteka ekartzen zien. Egun hoitako-ta, badakizu. Geo turroia o

hoitati bai nahikua.

- Baita're?

- Gozoa? Gozoa ekartzen zan. Hortako.

- Oain bezela hainbeste klase ba al zan turroiana?

- Ez, ez, gaur klase gehio dau.

- Ordun ze klase izaten zian? Gogorra...?

- Gogorra, biguiñe, ta geo... bi-hiru klase behintzat bai. Hiru? Gehiyo. Bai, gogorra ta biguiñe izaten zien ta gero beste marroi zea batzuk izaten zien, txokolatezko zea turroi o zeakin, almendra o zea hoitakok ta. Goseik ez gendun pasatzen. Nahiko jana.

- Ta postretako aparte izaten al zan arroz con letxia o?

- Arroz con letxe. Hue? josus! Jaietan'e hue beti, arroz con letxe. Hue itten gendun etxen ta. Esnea etxen ta gero...

2. Aisia

2.1. Orexako jai-giroa

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Ausmendi, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ORE-001/013
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:25:02. **Bukatu**: 00:26:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: Orexan jai-giroa izaten zen: dantzan egiten zuten; Santa Agedako festak izaten zirenean etxez etxe ibiltzen ziren eskean kantari... Santa Ageda egun handia izaten zen.

Transkripzioa

- Ta gaiñantzian, Orexan jendia juntatzen zan ? ba, jai atsaldetan-o esan dezu soiñuakin-ta juntatzen zala.

- Bai, bai, hoi juntazen zan jendea.

- Ze iten zenuen, dantzan aitu gehienbat?

- Dantzan. Ta gero... Santa Ageda eo zea izaten zan pesta, itten zan Santa Agedan. Santa Ageda gauen jendea Santa Ageda esken etxez etxe ta han ibiltzen zien ta gero pesta jartzen zuen hor hurrungo eguneako ta hola.

- Nola aitzen zian eskian, kantari o... ?

- Kantari, bai bai, soiñua joz kantatu itten zuen jende, gizonezko, mutil ta... neskak'e bai ta hola. Gu ez giñen ibiltzen, baiño bazien. Gure zea garaien'e batzuk diferentzikok bagiñen. Zea, batzuk hobetogo, beste batzuk... gu... ardi zaharra bezela, erratuk. Denatakok [... giñen].

- Ta Santa Agedakua ze izaten zan egun haundiya?

- Bai, egun haundie.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com